



PR<sup>®</sup>-BI 176

# Katillotxu



*begirada bat iragan megalitikoari*

**8,4 Km - 3 ordu**


## Fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amaiera: **Mundaka-Parkea**
- Ibilbidearen luzera: **8,4 km**
- Gehieneko malda: **315 m**
- Denbora (g.g. b.): **3 ordu**

### Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Mundaka-Goitz-Katillotxu-Munitiz-Sukarrieta-Portuondo-Mundaka.
- Beste abiapuntu posible batzuk: Sukarrieta, Portuondo eta Bermeo (GR 38 jarraituz).
- Urdaibai Bird Center. Bisitaldiak: 94 625 11 57

### Ibilbidearen perfila:



Ibilbide biribila, Mundakako eta Sukarrietako portugune ikusgarriak Katillotxuko trikuharri-estazioarekin lotzen dituena.

Katillotxuko gailur-lerroak altxor handi bat gorde du, 5 trikuharriz osatutako multzo megalitikoak, eta ibilbide honi jarraikiz iritsi zaitezke horra.

Mundakako erdigunetik abiatutako gara, XVI. mendean berreraikitako Andra Mari elizaren parean. Goitizerrantz aurrera eginez, Mundakako baserri ederrenetako batzuk ikusiko ditugu, beren baratzeak, larreak, heskaiak eta zuhaitzi txikiak eta guzti.

Goitizen, Bermeotik (38. eta 123. GR zidorretatik, Demikun barrena) igotzen den pista zabal batek gure bidezidorrarekin bat egiten du Katillotxurantz jarraitzeko. Ur-andelaren ondoan iturri txiki bat dago, eta, hartatik pasatu ondoren, aldapa piko batek Katillotxuko tontorreraino eramango gaitu (336m).

Tontor xume horretatik estuarioaren eskuinaldeko ikuspegi zabala dugu: Laidako hondartza, Ogoñoako haitza, Atzarreko tontorra eta haren hegoaldeko artadi mardula.

Tontorreko trikuharriek gorde dituzten sekretuez gozatu eta gero, gailur-lerroan aurrera egiten du bidezidorrak, eta beheako bidea hartzen du gero, Sukarrietako kostaldeko herri dotoreraino, Munitizko dorretxe (XVI. mendea) ondotik pasatuz.

Portuondorantz aurrera jarraitzen du bidezidorrak, senadiaren, kanpinaren eta begiratokiaren ondotik pasatuz, eta azken tartea egiten du Mundakara iritsi baino lehen. Bizkaiko herri ederrenetako bat da Mundaka, eta behin baino gehiagotan harrituko gaitu.



## Informazioa

### Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
- Bermeo ..... 94 617 91 54
- Mundaka ..... 94 617 72 01

### Garraio publikoak:

- Bizkaibus ..... 946 125 555
- Euskotren ..... 902 54 32 10



Urdaibaiko Biosfera  
Erreserbako Patronatua  
Madariaga dorretxea  
94 403 23 60

## MIDE

Bideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da, Tetik 5era, txikienetik handienara doazen zailtasun balloekin.

- 1** Ingurunea
- 2** Desplazamendua
- 2** Ibilbidea
- 2** Esfortzua

### Gogoratu

- Ondo prestatu txangoa
- Utzi baketan inguruko animaliak
- Gogoratu prismatikoak hartzea
- Ez hartu lorerik
- Utzi atakak aurkitu dituzun moduan
- Ez bota zaborrik



Sukarrieta eta Katillotxuko gailur-lerroak



Katillotxutik bistak

# Katillotxuko multzo megalitikoak

Urdaibaiko 10 monumentu megalitikoetatik 9 Sollubeko trikuharri-estazioan bildu dira. Besteak beste Katillotxuko trikuharriak daude, induskatu direnak eta tontorrean erakusgai jarri direnak. Zatoz eta ikusi gorde dituzten sekretuak!



## portuondo

Portuondoko senadian erromatar portu zahar baten hondarrak gorde dira. Merkantiak lehorreratzeko portu txiki horiek ohikoak ziren erromatar itsas bideetan. Portuondon ontzi txikietan kargatzen zuten merkantzia, Foruko erromatar herrixkarako bidean.




(112) SOS DEIAK







Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®			
	Zidorraren jarraipena	Norabide aldaketa	Okerreko norabidea

	Mendiko ibilbide laburra (PR)
	Mendiko ibilbide luzea (GR)
	Interesguneetara desbiderapenak

- Ikurrak**
-  Abiapuntua
  -  Bizkaibus
  -  Euskotren
  -  Aparkalekua
  -  Eliza
  -  Ermita
  -  Dorretxea
  -  Trikuharria
  -  Ikuspegi panoramikoa
  -  Gailurra
  -  Ostatua
  -  Kanpina
  -  Hondartza
  -  Taberna- jatetxea
  -  Iturria
  -  Natura 2000 sarea

